


BURUKETAK

1. Torlojuak ekoizten dauan lantegi batek bere biltegian 100 torlojuko 7.000 kutxa eta 500 torlojudun 1.000 kutxa daukaz. Zenbat torloju daukaz biltegian?



Datuak

Eragiketak

Soluzioa:

2. Patata ekoizle baten lurretatik atzo 9 kamioik urten eben eta gaur beste 11 kamioik urten dabe. Kamioi bakoitzak 18.000 kilo patata garraitzen badauz. Zenbat patata atara dauz egun biotan?

Datuak

Eragiketak

Soluzioa:



- 3.- Mahasti baten mahatsa batzen dabiz. Ontzi bakoitzak bataz beste 20 kilogramo mahats daukaz. Eguna amaitu danean 4.500 ontzi zenbatu dabez. Zenbat kilogramo mahats batu dabez egun osoan?

Datuak

Eragiketak

Soluzioa:



4.- Txokolate fabrian bonboiak 4 eta 6ko kutxatan sartzen dabez. Zenbat bonboi ontziratatu dabez 3.000 kutxa txiki eta 9.000 kutxa handi bete badabez?

Datuak

Eragiketak

Soluzioa:.....

5.- Herriko enparantzan 35.000 piezaz osotutako mosaiko erraldoia egin gura dabe. Artistak kolore gorriko 70 kutxa, 40 kutxa berde, 90 kutxa urdin eta 60 kutxa laranja eskatu dauz. Kutxa bakoitzak 100 pieza daukaz. Zenbat pieza dagoz lanean hasteko? Zenbat pieza izango dauz sobreran edo faltan?

Datuak

Eragiketak

Soluzioa:.....



6.- Martak 24.000 euro balio dauan kotxea erosiko dau. Ordaintzeko orduan 6 hilabetetan ordaintzeko aukera emon deusie.Holan egiten badau, zenbat ordaindu beharko dau hilero?

Datuak

Eragiketak

Soluzioa:.....